

Asel Luzarragari elkarrizketa

KEPA UGARTE MARTIARENA :: 13/02/2024

Asel Luzarraga: "Preso maputxeentzako nire kasuak garrantzi handia eukan, atzerritar bati eurei egunero gertatzen jakiena gertatu jakolako"

Gose-greba likidoaren bidez, Txileko epaileek ezarritako 15 urteko espetxe-zigorra errebokatzea exijitzen dabiltza Ernesto Llaitul, Esteban Henríquez, Ricardo Delgado Reinao eta Nicolás Alcamán ekintzaile maputxeek. Laster 90 egun beteko ditu baraualdiak eta lehenengo hirurak erietxera eroan behar iozan dituzte jada, euren osasun-egoera kritikoa delako. CAM Arauco Malleco Koordinakundeko beste 11 preso politiko batu zaizkie protestara eta horiek 62 beteko dituzte gose-greban. Horren harira, berak Txilen bizi izandakoaz -tartean, kartzelan, muntaia polizial eta juridiko baten ondorioz- elkarrizketa egin dio Sare Antifaxistak Asel Luzarraga Zarrabeitia (Bilbo, 1971) euskal musikari ohi eta idazleari. 2009ko martxoan Txilera bizitzera joan zen, eta horri esker besteak beste maputheen egoera bertatik bertara ezagutu zuen. 2009ko abenduaren 31n atxilo hartu zuten Temucon (Wallmapu). Hainbat bonba-eraso leporatu gura izan zizkieten, baina berehala frogatu zen Aselek ez zeukala horiekaz zerikusirik. Hasieran 10 urteko kartzela-zigorra eskatzen zuten beretzat, gero fiskaltzak 5 urteko kartzela-zigorra eskatu zuen. 2010eko irailaren hasieran Txilek 220 eguneko espetxe-zigorra jarri zion euskal idazleari, baina urriaren 1ean Mundakan zegoen.

Kepa Ugarte Martiarena / Euskarazko kazetaria / Euskal Herria

Zeintzuk dira maputheen borrokaren arrazoiak?

Maputxeak dira Latinoamerikan Espainiako Inperioak edo Koroak aitortu zeuen nazio bakarra. Alegia, Espainiako Koroak hitzarmen bat egin zeuen maputxe-herriagaz dauela hainbat mende, euren lurraldetasuna onartuteko eta muga batzuk finkatuteko. Noski, muga horreetan Espainiako Koroak baeukan maputxeenak ziren hainbat lur hartuta. Baina, bueno, muga finkatu zan eta, beraz, maputheen lurraldetasuna onartu. Maputxeek ez daue inoiz estatu-egiturarik euki, ezta gura be. Nahiko herrialde horizontala izan da beti, komunitateka antolatuten dana. Eta komunitate bakoitzak dekoz bere egiturak. Eta gero, euren arteko koordinazino-moduak, noski. Komunitateen artean, normala denez, harremonak ez dira beti onak izan, baina orokorrean hori izan da euren antolatzeako modue.

Eta zer pasatu zen?

Ba, XIX. mendearen hasieran Argentinan eta Txilen burgesia kreoleak edo espainiar jatorriko, edo euskal jatorriko..., hau da, kolonizatzaileen ondorengoek ekin otsiela Independentzia Gerrari, Espainiatik independizatzeko. Eta Independentzia Gerra horren ondorioz, Txile eta Argentinako estatu independenteak sortzeagaz batera, alde batetik, Txileko armadak eta, bestetik, Argentinakoak, Andeen alde bietan, ekin otsien menderatu gabeko herri indigenen kontrako gerrari. Txile aldean deitu otsien Araucaníaren Baketzea: Bio Bio ibaitik beherako lurak bereganatzeko gerra. Eta Argentinan, Panpa lur-eremu eskerga eurentzako zan basamortua eta han bakean bizi zirenen lurak eskuratzeari eta

lapurtuteari deitu otsien Basamortuaren Baketzea. Ze maputxeek ez eukien lurralde zeozelan definiturik, herri askok euki daben moduan. Toki batetik bestera mugitzen ziran; euren komunitateak egon ziren toki askotan. Eta ailegaten ziren Ozeano Baretik ia Ozeano Atlantikoraino. Ia gaur egungo Buenos Aireseraino. Gero, hortik, beste herri indigena asko be bizi ziren: desagertutako kilmeak eta beste asko. Eta orduen lur-lapurreta egin otsien maputxeei.

Hori dana bihurtu zan, alde batetik, Txile, eta bestetik, Argentina. Eta jabetza pribatuaren amarrua erabili zauien lurren jabe bihurtuteko. Hau da, maputxeek ez zeuen ezaututen jabetza pribatua. Ez zen existitzen. Eta herri askotan lez eta historian milioika urtez gertatu dan lez, ez zegoen jabetza pribaturik. Eta orduan Txile eta Argentinako gobernuek erabili zabien jabetza pribatuaren tituluak emotea lurren truke: “Orain jabea zara, orain erosiko dotsoguz”. Eta holan beste modu asko: gerra bat eta gerra ekonomikoa. Hori XIX. mendean gertatu zan, baina XIX. mendetik maputxeek jarraitu dauie borrokan, ze ez dauie inoiz onartu euren lurrak Txile eta Argentinako estatuen eskuetan gelditutea.

Maputxeak lurrari lotuta daude, ezta?

Euren borroka da euren lurraldetasuna, euren lurrak. Eta lurrak gura dauiez ez aberasteko, ez kapitalismoa garatuteko... Gura dauie biziteko. Ze ganera euren filosofia da maputxea dala lurrarena eta ez lurra maputzearena. Eurek kriston errespetua dotsie lurrari. Eta orduan hori da euren borroka, azken finean. Euren lurretan bizi ahal izatea, euren lurrak euren esku egonda: eurek kudeatuta eta eurek gura dauinerako erabilite. Baina, klaro, hor kriston negoziokoak dauz: alde batetik, Argentinan, oligarkia lurjabea da jaun ta jabe. Askok eta asko euskal jatorrikoak. Eta Txilen batez be basogintza, papera eiteko, eta abar. Orduen, horreek jun dire euren lur guztiek hartuten eta, ba... lantzean behin -gaur egun maputxe gehienak bizi dira urietan, Santiagon esaterako- batzuk elkartuten dira, komunitatea antolatzen dauie eta egiten dauiena da lurrak berreskuratu. Orduan, euren borroka da lurrak berreskuratze prozesua. Estatuentzako lur-berreskuratze hori legez kontrakoa da eta horren kontra egiten dauiena da lur horreek militarizatu.

Ze borroka-molde erabiltzen dituzte euren borroka aurrera ateratzeko?

Borroka moldeak asko dira. Funtsezkoena esandakoa: lurrak berreskuratzea, hau da, antolatutea holako enpresa handiei, lur-jabe handiei, ostutako lurrak ostabere kendu eta herriari bueltatzeko. Komunitateak hainbat tamainakoak dira. Batzuk oso txikiak, beste batzuk handiagoak, hainbat adinetakoak... Eta komunitate bakoitzak gitxi gora behera erabakitzen du gaur egun bere antolakuntza. Egixe da komunitate batzuk ahalegintzen direla negoziatzen gobernuagaz eta, apur bat, gobernuaren oniritzia eta babesla lortuten. Eta, orduan, ba, askotan... Badakigu zein dan gaur egungo urrea: turismoa eta halakoak garatu. Beste komunitate batzuek ez dauie ezer jakin gura estatuaz eta guztiz autoantolatuak daude. Beraz, lehenengo borroka-modua da lur batzuetara juen eta esatea: “Hau gu bizitzeko lurra da”. Eta euren komunitatea, euren ruca (etxea) bertan eitzie.

Sabotajeak ere egiten dituzte, ezta?

Batzutan erabiltzen dabien beste borroka-modua da sua. Hor pinuz inguratzen dauie, ze batez be da papergintzarako basogintza. Pinu-sail ikaragarri horreek eitzen dauiena da lurra

erabat sikatu. Beste kasu batzuetan be da aguakatea. Horrek kriston lehortekak sortuten dauz eta arazo ikaragarria bihurtu dira, bai Txilen, bai Mexikon, gure Eroskin eta gure dendetan egunero aguakateak euki ahal izateko... Beste kriston hondamendiye da; gure luxua beti da beste edonoren tragedia... Eta orduen batzuk deitzen dauiez erasoak holako sailen kontra, holako enpresen makineriaren kontra, instalazioen kontra... Inoiz ez pertsonen kontra. Gero, antolatzen dira modu federatiboan; komunitatien badekoez euren lonco-ak (buruak), machi-ak... Azken horiek dira apur bet espiritualtasunaren figura. Gure garai bateko sorginak, xamanak... Portzierto, Argentinatik guztiz desagerrarazo zauienak. Izan be, Basamortuko Konkistan euren helburuetako bat izan zan, hamengo sorginakaz lez, machi guztiak desagerraraztea. Hori izan zen sarraski handienetako bat. Txile aldean, badauz machiak, garrantzi handia dekoyenak... Eta gero badauz werken-ak (mezulariak), peñi-ak (borrokalariak), toqui-ak (generalak) -gerra behar danian-. Emakume tokiak be egon diez. Azken finean, autoantolakuntza eta autodefentsa.

Gobernuak zelako tresnak erabiltzen ditu maputxkeen borroka desaktibatzeke? Gerra zikina ere badago?

Gobernuaren aldetik erantzuna izan da: alde batetik, komunitateak bananduten ahalegindutea, hau da, Estatuagaz ondo moldatuteko borondatea erakusten dauen komunitate batzuk erostea eta agintzea baliabideak, eta abar. Hori zatiketa lortuteke. Eta bestetik, burua makurtuten ez dauien komunitateakaz gerra, egurra. Guztiz militarizatuta dau esaterako Araucanía eta gerra zikina eten barik. Nik lehen eskutik bizi izan nauen zer dan poliziak prestatutako montaje bat. Ba niri egiostiena da eguneroko ogije eta hor dua sartuta fiskaltza, karabinberuak, epaileak, ministroak... Hori oso ondo koordinatuta dau, batez be borrokalari batzuk ganetik kenduteke. Eta, orduen, erabiltzen dia lekuko babestuak, askotan direzenak infiltratuak. Kasu batzutan ikusten da zelan poliziak bialdutako infiltratuek prestatu dauiez erasoak eta gero nahastu dauiez hor egon ez direzen pertsonak. Hori da Estatuaren modua, gobernu guzti-guztiekaz. Ze niri tokatu jatan Bachelet sozialistaren gobernuagaz, gero egon zen Piñera neoliberala eta gero ostabere Bachelet... Eta batez be horretarako erabiltzen dauie Lege Antiterrorista.

Dirudienez, egiten dizkieten epaiketak ez dirudite oso garbiak, orain ere ikusten ari garenez.

Zer da epaiketa garbia? Nire kasuan, anarkista izanda nagola epaile eta epaiketa guztien aurka, ez dakit inon ezertarako epaiketa bera garbia izan daitekeen. Baina, kasu hontan bereziki da lohia, zikina. Ze erabiltzen diren frogak faltsuak, sortuten dira frogak, epaile asko dauz edozer onartuteko prest, kriston arrazakeria dago eta hori be gogoratu behar dugu... Txileko euskal komunitatea dala bereziki oso arrazista, oso klasista eta oso oligarka. Hor be herentzia ez da bereziki harro egoteko modukoa. Eta epaiketa gehienak dira fartsa hutsa, eta normalean epaia aldeaz aurretik emonda dau. Gero, badekoez euren trikimailuak: adibidez, imintzen bada errektusoren bat buelto ez bakit nongo auzitegira, badakie auzitegi horretan beti emongo dauiera maputxkeen edo anarkisten kontrako epaia. Ze maputxkeen kontra erabiltzen dan estrategia bardin erabiltzen da anarkisten kontra eta deseroso dan edonoren kontra. Lehen eskutik bizi izan dot; badakit zelakoa dan; barru-barrutik ikusi dot. Eta orduan badakit eguneroko funtzionamendua zelakoa dan.

Poliziak ere parte hartzen du muntaia horietan?

Hor badauz polizia kidego bi: PDI (Policía de Investigaciones) eta karabineroak. Azken hauetako batzuk joaten dira Espainiara guardia zibilek entrenatuak izateko... eta polizia kidego biren artien harremon oso onik. Eta daola urte batzuk PDI hasi zan ikerketa bat: Operación Huracán. Eta hor hasi zen polizia batek esaten beste poliziaz eta fiskalez erakunde antolatu bat osatzen zauela holako montajeak egiteko. Hori publiko egin zan eta epaiketak be egin dira. Gero, holako epaiketetan beti badauz pagaburu batzuk. Horietako batzuk kartzelan dauz. Nire kontrako montajean parte hartu zauien egile nagusiek be Operación Huracán horretan dauz momentu hortan eta batzuk prozesatuta, errudun jota eta kartzelan. Fiskala bera dau prozesatuta. Baina, ez dau axola. Ze mugitzen dauiez piezak: fiskal bat Santiagora bidaltzen dauie, han anarkisten kontrako epaiketetan egiteko; beste bat bidaltzen dauie ez dakit nora; baten bat badoa kartzelara... Baina, berdin da. Hori barritu egiten da. Eta makillatzen da. Ze ematen dau Estatuak zeozer egiten dauela eta gaiztoak kartzelara doazela. Holan, batzuk lasai geldituten dira. Baina, gurpilak aurrera jarraituten dau bardin-bardin, ze hor beti dauz ordezekoak prest. Eta ez da hori inoiz etengo, ze estatuek beti dekoiez barne-etsaiak, ezta? Etsairik arriskutsuenak estatuentzat beti dira barrukoak, etxeakoak.

Gatibu hartzen dituztenek preso politiko izaera aldarrikatzen dute.

Ze preso ez dan politiko, ezta? Ikusi behar genuke ze politikak agintzen dauie eta nor doan preso. Eta normalien preso doaz justizia manipulatzeko dirurik ez dekoienak. Baina, bai, zeozelan hartuten badugu zentzu hertsian euren burua preso politikotzat jotzen dauie eta nik uste dot nazioartean be halakotzat jotzen diela. Ze euren borroka politikoa da eta arrazoi politikoengatik jazartzen dauiez. Batez be kontuan hartunda kartzelan dauzen gehienek ez dekoieki zerikusirik, kakotzen artean, delituakaz. Eta delituak dauzenian zelako delituak diezen, ezta? Inoiz ez pertsonen kontra; kalte materialak, aldarrikapen moduan... Beraz, preso politikoak dira.

Espetxe barruko borroka ere ezinbestekotzat jotzen dute?

Kartzelako borroka hemen be Euskal Herrian ezeutu dugu, baina toki guztietan... Ni anarkista moduen beti gauz adi, ze European be zenbat preso anarkista dauzen momentu guztian. Gogoratu behar da Italian Alfredo Cospitoren greba luze ikaragarri hori. Ez dakit zenbat izan zen... uste dut urte erdi egon zala gose-greban, 41 bis erregimen faxista hori dala. Beraz, badakigu disidentziarentzako zoritzarrez kartzelako borroka oso garrantzitsua dala, ze zoritzarrez kartzelak, besteak beste, disidenteentzako dauz eginda eta pentsatuta, eta sistema osoa horretarako dau pentsatuta. Sistemara moldatuten ez danak, arazoak emon ezkerro, horretarako dau kartzela.

Zelako oihartzuna izan dute orain arteko gose grebek?

Ez dakit zenbat preso politiko dauzen. Ni hor egin naienean, Temucoko kartzelan, nik pentsaten dot 15 izango ziela... Ez zen kartzela oso handiye. Eta, hortan, Estatuak berak

onartu otsien estatus berezia eta atundu otsien modulu bat eurentzako, bakar-bakarrik peñientzako. Eta guk topo eitxen gendun bisita egunetan, familiak etorten zirenean eta. Orduan, nik hor aukera izaten nauen maputxe presoakaz berba eitzeko, euren egoera ezeututeko eta bakotzak bizi izandako montajeak ezeituteko. Horregatik, Estatuarentzako oso garrantzitsua da horren guztiaren inguruko isiltasuna. Eta horregatik guretzako oso garrantzitsuan da holako borrokei bozgorailua emotea. Ze hamen badakigu kolore bateko preso batek gose-greba egiten dauienean zelako oihartzuna dekon komunikabide guztietan eta zelan beste estatu batzuetan dauzen gose-greba izugarri luziek, eta ez dago oihartzunik. Ez da ezer entzuten. Eta ez da agian pertsona bat; agian dira hogeia, edo gehixago, gose-greban dauzenak... Eta batzuk deskonpentsasio ikaragarriak, bizi arriskuan... eta ezebez. Komunikabideetan ezebez. Beraz, kartzelakoa borroka oso garrantzitsua da. Nire kasuan, anarkiston kasuan, gure borroka da kartzela ororen kontra, kartzelaren beraren izanaren kontra. Hori da ezbaian imintzen doguna, ez bakarrik guri tokatzen jaskunean. Kasu orotan. Imajinatzen dut maputheen kasuan danatarik egongo dirala: egongo dira kartzelen alde euri tokatzen ez jakienean... Baina, dana dala alkartasun osoa merezi dauie.

Aurretik egindako gose-grebetan noraino iritsi dira?

Beitu. Nik gogoratzen dot 2010eko gose-greba, baina hori niri tokatu jatalako zati baten kartzelatik bizitzea eta gero kanpoan nengola. Eta preso politiko politiko pilo bat egon ziren... nik badakit Temucoko kartzelako 15ak egon zirela gose-greban, baino egon ziran Concepcionen... Txile osoko kartzeletan egon ziren peñi guztiak gose-greban. Ez nai akordaten, baina nik uste dut 90 egunetik gorako gose-greba izan zala. Momentu baten, egarri greba be iragarri zauien batzuek, baina ez nai akordaten eitera ailega ziren. Nik badakit ze ni behin kartzelatik urtenda eta etxetik urteteko baimena euki naueneko, izena eman nauelako Temucoko kartzelan han itxi nebazan lagunei bisitak eitzeko. Eta, noski, peñi-ei egiten neutsien bisita. Justu momentu hortan gose-greban egon ziren. Orduan, nik eroaten noutsien zumoak eta esateko gauzak. Ze han be, kartzela barruan, Estatuak ez dau ezer ordainduten, ez da gastua Estatuarentzako, Han dana egiten gendun presoak geuk. Geuk egiten genduzan gure otorduak prestatu... danatarik. Eta horretarako familiek ekartzen oskusan gauzak: arroza, makarroiek, okela... Fruta debekatuta egoan kartzelan... Ze badaezpada ia jendeak chicha egingo zeuen, hau da, alkohol dun edariren bat egingo zeuen... Orduan, fruta bakarra zan brikeko zumoren bat eroatea. Eta nik holakoak eroaten neutsasan bisitetan. Esan bezala, ehun egunetik gertu bai egon zan gose-greba. Baina, badinotsut, hemen 180 ta piku egun gose-greban egon zan italiar bat eta, hemen, euskal komunikabide gehixenetan isiltasun osoa.

Txilen zeundela zelan bizi izan zenun zuk hau dena?

Txilen egon nintzenean, nik batez be interes handia euki nauen maputheen egoeran. Ezautu nauezan maputxeak. Gure lagunen artean danak ginen anarko-punkak eta anarko-punken artean be batzuk, ez gitxi, maputxe ziren, peñiak ziren... eta dexente berba egiten gendun horretaz. Baina, batez be gure borroka zen borroka anarkista. Eta gero alkartasuna maputxe herriagaz, ze maputxiek gaur egun, bai Txilen, bai Argentinan, euren alde dekoien mugimendu nagusia anarkista da. Eta gainera eurak politikoki erabilten ez diezen bakarrik; egiten dauena alkartasun hutsez, ez kalkulu politikoengatik. Ez nauen euki aukerarik komunitate bat bisitatzeko, ze errepetuagatik maputxe-komunitate batera juateko behar

duzu gonbidatua izan. Orduan, denbora behar duzu nonor gonbidatuteko.

Gertutik ezagutu zenituen bertan gertatutakoak, ezta?

Ni ailega baino apur bat arinago izan zan Matías Catrileoren hilketa, ze holakoak bai gertatzen dira. Hau da, pertsonen kontrako erasoak Estatuak egiten dauz. Poliziek... eta tiroz hil zaiuen unibertsitatean egon gazte hori. Nire lagunek ezagutzen zaiuen, eurentako batzuek beragaz ikasten zaiuen. Eta ni han nengola Mendoza Collío hil zaiuen poliziak, tiroz be bai, lepotik emondako tiroz. Ba, kasu hartan, momentu baten gonbidatuak izan ginen hiletara eta joango ginen kamioneta baten haren komunitatera; baina, azkenean, ez nai akordaten zer gorabehera egon zan eta ezin izan ginen juan. Eta harrezkero, hilketa salatuteko manifa ikaragarria egon zan eta gu joaten ginen, nire kasuan, errespetuz. Gero, kartzelan, eurek kontaten eutsasan historiak; eta eurentzako nire kasuak garrantzi handia eukan, ze ikusten zaiuen, ba bueno, nire bitartez posible eukiela hezi komunikatibo hori apurtutea, eta apur bat kanpoan zeozer jakitea, atzerritar bati eurei egunero gertatzen jakiena gertatu jakolako. Egixe da nirea batez be egon zala bonba anarkistei lotuta; holan montatu zaiuen nire kasua. Egixe da atzean egon zala nik maputxeen borrokaren alde idatzitako artikulua bat. Baina, batez be, nire kasua bonba anarkistei lotu zaiuen. Ordun, ni maputxeen egoera oso zeharka ezeutu nauen. Horregatik ez nai ausartuten gauza lar esatea. Baina, beti egoan airean, ezta? Gainera, gu Padre de las Casasen bizi gunan eta hor gure auzoa amaituten zan.., Hor baegoan hormatxo bat eta hor hasten zana zan landa, basoak eta. Jakin baenkien hortik baegoala maputxe-komunitate bat, gugandik hur.

Maputxeen borrokak oihartzuna eta babesa ba al dauka Txileko gizartean?

Txileko gizartean kriston arrazakeria dago, kriston klasismoa... ikaragarriye da zelan landa-eremuko jendea, hau da, direzenak nekazari baino langileak, ez lurjabeak, pobreenak eta zapalduenak... asko ze fatxak direzen. Ze lilurata dauzen enpresa-buruakaz. Pentsaten dauie aberatsak jada aberatsak direzenez ez dauela interesik lapurtuteko, eta ikusten duzu ze kolonizatuta dauen askoren mentalitatea. Karabineruak polizia ikaragarri errepresiboa eta karabineroa zan ni egon naienean Txileko erakunderik baloretuena. Gero haren balorazioa ikaragarri jaitsi zan Txileko eztanda hori gertatu zenean; justu ze ongi etorri jakon Piñeraren gobernuari pandemiaren negozioa protestan moztuteko... Baina, momentu hartan, 2019 hartan, egin zan suspertze bat gizartean. Beno, ikasleen artean beti egon da mugimendua: eskola asko okupatzen ziren, unibertsitatea be bai, ze Txilen ikastea ikaragarri garestia da. Ganera, eskola publikoak oso abandonatuta daude... Beti egon da borroka zen hori ikasleen artian. Baina, gero, gizartea oso kontserbadorea da. Eta momentu hartan, bapatean, inoiz kalera urtendako jendea hasi zan kalera ataratzen, protesta eitxen... Poliziaren, karabineroen, oldarraldia ikaragarria izan zan... zenbategi galdu zezan begixek, bizia; zenbat zauritu... Orduen, karabineroen ospeak egin zaiuen behera eta pasatu zan erakunderik gorrotatuena izatera. Niretzako izan beharko zan egoera normala, egunerokoa.

Zelan lortu zuten mugimendu hori geldiaraztea?

Gobernuak eta oingo gobernuek be konstituzio barriaren promesagaz, lortu zaiuen mugimendua asko moztutea. Konstituzio batek ezer konponduko baleu, ezta? Danok gabiz konstituzioen pean eta ez dot ezeututen herria libre dan herrialderik, konstituzioa eta guzti.

Eta, gaur egun, beste errealitate bat dau. Lehengo egunean nire abokatuak esate ostan gaur egun narkotrafikoa hasi dala gora eta gora. Horretaz be ez da lar berba egiten, baina esa oste ia egunero agertuten dala errepideren baten hilotzen bat eskuak atzean lotuta eta tiroa buruan. Eta, orduen, segurtasunaren aldarri horren pean ostabere hasi da karabineroen ospea gora.

Baina, parentesi txikitxo hartan, matxinada hartan, gizarte-eztanda hartan, bapatean Txilen hasi zen ikusten maputxkeen bandera protesta guztietan eta Txileko bandera baino gehiago erabilten zan. Are gehiago, jende askok erreten zauen Txileko banderiei eta altxatzen zauen maputxkeen bandera, maputxe izan barik. Jende asko hasi zen konturatuten zen bizi izan dauien maputxiek egunero. Euren kontra bueltatu zan indarkeria hori guztia zala maputxeek egunero bizitzen zauiena. Baina, aldi berean, ze laburra dan oroimena, ze urteak pasa eta hori ahaztuta dago. Maputxkeen lurraldeak inoiz baino militarizatuago dauz, hau da, errepresinoak ez dau inoiz behera egin. Pandemiarena ere erabili zauien maputxkeen kontrako errepresinoa estututeko.

Zeintzuen aldetik daukie babes gehien maputxeek?

Jendeak berehala ahaztuten dau: ezkerretik asko erabiltzen da maputxeena erretrorikoki. Eta Argentinan askoz larriagoa da. Bertan nik eukin dotez eztabaidak troskista eta meste marxista mota batzuekaz, eta euren teoria da, apur bat Frantzian dinoen lez euskaldunen ganean, maputxea ez direla argentinarrak. Txiletik pasa zirela “hona” (Argentinara). Hau da, eurak dira Argentinan “inbadiatzaileak”. Eta, orduan, edozer gauza gertatzen bajakie maputxeei “merezita” dekoie, ze eurak dira “arrotzak”, “kanpotarrak”. Hori esaten dotsu jende ezkertiarrak.

Beti gauz Txilen, baina Argentinan are okerrago dauz: ahaztuago, bakartuago, ezkutuago. Eta gainera euren lurrian arrotzak balira tratatuta. Ordun, oso aliatu gitxi dekoiez euren lurraldeen barruan eta, horregatik dinotsut: inoiz alkartasuna negoziatzen ez dauienak anarkistak dira. Baina, klaro. Anaskistak badakigu ez dekogula ospe onik gizartean eta ez dekogula baliabide askorik. Eta askotan maputxeek eurek uko egiten dotsie anaskistekaz gauzak egiteari, ze batzuk amets egiten dauie maputxe-estatu bategaz. Gero, maputxe-borrokaren barruan, batzuk badekoie eragin politiko oso marxista eta oso guevarista... Eta oso barregarria da ze eurentzako anarkisten ideiak hor bat datoz Txileko Estatuagaz, arrotzen ideiak direlako; baina, Marxenak ez. Agian, Marx be maputxea zan. Eta Che “Guevara” be bai. Holako gauzak be gertatzen dira, komikoaren eta tragikoaren artean... Eta halanbere dekoiezen aliatu bakarrak gustatu zein ez anarkistak dira. Eta beste maputxe askok anarkisten alkartasun eta alkarlan hori oso natural hartuten dauie, ze maputxe poeta batek esan ostan: “Maputxeok ez dugu anarkista izan behar. Jada bagara maputxe”. Esanez, maputxon bizimodua anarkista da; maputxe izatea anarkista izatea da, ez dugu estatuturik gure, ez dugu inoiz estatuturik eukin. Autoantolakuntzan sinistuten dogu, horizontaltasunean. Horregatik be anarkistei egiten dakie nahiko natural maputxkeen borrokaren alde eitxea. Baina hortik kanpo oso bakarrik dauz. Horregatik beti bilatuten dauie nazioartean ikusaraztea. Baina, oso gatz dekoie.

<https://sareantifaxista.blogspot.com/2024/02/asel-luzarraga-presos-maputxeentzako.html>

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/asel-luzarragari-elkarrizketa